

HIZKEREN ANIZTASUNA

Deskribapena: Koktelak egiten zerbitzarien imajinak ageri dira.

Kike (off ahotsa): Koktel ontziari ondo eragitean datza koktel on bat lortzeko misterioa. Eskumuturren jokoan dago koxka jakina, baina baita astindu beharreko likidoen hautaketan ere. Konbinazioak hamaika izan daitezke, koktelak dastatuko dituzten hamaika lagun nahierara.

Deskribapena: Kikek zortzi baso ipintzen ditu mahai baten gainean, urarekin betetzen ditu eta, koloredun tinta desberdina botatzen du hainbatetan: bigarrenean hori koloreko tintaren tanta batzuk botatzen ditu eta, “euskalkia” txartela ipintzen dio aurrean; laugarrenari urdin tintaren tanta batzuk botatzen dizkio eta, “erdara” txartela ipintzen dio eta, seigarrenari, gorri tintaren tanta batzuk bota ostean, “euskara batua” txartela jartzen dio.

Kike: Hiru kolore nagusi ditugu hemen, euskalkia, erdara eta, euskara batua eta, hiru kolore hauen nahasketatik sortzen da gure herrian entzuten dugun hizkeren aniztasuna.

Deskribapena: Hirugarren basoan, hori koloreko tintaren tanta batzuk bota ditu lehenengo eta, urdin tintaren tanta gutxi batzuk gehitu dizkio, koilararekin nahastu ondoren, basoko ura berde kolorea bihurtuz.

Kike: Esate baterako, kasu batzuetan euskalkia da nagusi baina erdera pixka batekin. Beste kasu batzuetan aldiz, erdara eta, batua nahasten dira ia proportzio berean, proba egingo dugu.

Deskribapena: Bosgarren basoan tinta urdinaren tanta batzuk botatzen ditu lehenengo, gorriaren beste horrenbeste ondoren eta, nahastu ostean berde iluneko likidoa duen basoa gelditzen da.

Kike: Eta orain batua.

Deskribapena: Zazpigarren basoan, tinta horiaren tanta gutxi batzuk botatzen ditu lehenengo eta gorriaren beste batzuk ondoren. Koilararekin nahastu ostean, laranja koloreko likidoa gelditzen da.

Kike: Eta, beste kasu batzuetan aldiz, euskara batua eta euskalkiak nahasten zaizkigu. Euskalki pixkat botako dugu hemen eta, orain euskara batuaren txanda da. Ikusten duzuen bezela, hiru elementu hauek oso proportzio desberdinetan nahastu daitezke eta, nahasketa bakoitzetik kolore bat aterako zaigu. Ikusi!

Deskribapena: Lehenengo basoan, urdin tintaren tanta batzuk botatzen ditu lehenengo eta, gorriarenak ondoren, nahastu ostean, beste berde tonalitate bat hartzen duelarik urak.

Kike: Eta, orain batuaren txanda.

Deskribapena: Azken basoan, tinta horiaren tantak botatzen ditu lehenengo, gorriaren beste horrenbeste eta, urdinetik gutxi batzuk eransten ditu. Nahastu ondoren, urdin iluneko ura gelditzen da.

Kike: Euskalki dexente, batua dexente eta, erdera pittin bat. To! Orain zer ateratzen den. Ikus dezakezuen bezela, hiru elementu hauek konbinatzeko aukerak infinitoak dira eta, konbinaketa haueetatik sortzen da gure kaleetan entzun dezakegun hizkeren aniztasuna.